

KOSTUEN EGITURA

Edozein proiektua aurrera ateratzeko hainbat gastu egitea eskatzen digu. Kontuan hartu behar diren kostuen barruan kostu finkoak (dendaren alokairua, endaren elektrizitatea/ura ...) eta aldagarriak aurkitzen ditugu (soldatak, material kopurua...). Behar izango ditugun kostu zuzenak hauek dira: arropa, poltsak, publizitatea... hau da behar diren materialak proiektua betetzeko. Bestetik, zeharkako kostuak: zergak, elektrizitatea/ura... dira

Bestelako kostuei dagokionez enpresa txikia garenez, eta ez dugu eragin ekologikoak.

Gure enpresak kalitatean oinarritzea du helburu besteengandik bereizteko, eta ez prezio baxuetan. Kostuen egitura antolatzeko orduan, beste enpresa eredu izan ditugu kontuan, adibidez eskala-ekonomiako edo hedapen-ekonomiako enpresa. Dena dela gure aburuz, ez dira komenigarriak guretzat. Alde batetik, lehenengo ereduari langileak denbora gehiago eraman liteke lanean, baina eredu hau ez dugu kontuan hartzen, ez zaigulako justua iruditzen. Bestetik, bigarrena ez doa bat gurekin jantzien ekoizpena espezializatuak izatea nahiago dugulako.

Proiektua hasteko behar den hasierako inbertsioa ertaina izan behar da, kontuan izanda tamaina txikiko enpresa bat sortuko dugula. Inbertsio hori bankuari eskainitako diru-laguntzari ezker martxan jarriko genuke. Gure lehenengo ideia lokala alokatzea da, horrela enpresa txarto joatekotan ez genuke hain galera handia izango. Lan egiten hasteko denda altzariz jantzi egin behar da eta berez bai materialez bai makineriaz hornitu. Hilabetero izango ditugun gastu finkoak eta aldakorrak gehituz. Denda zabaldu baino lehen, enpresen soberakinak erosi edo biztanleriaren oihal zaharrak eskatuko genituzke, bigarreneko paperontzi bat jarriko genuke trantsitu handiko leku batean (udalaren baimenarekin).